

## ERRENTA-ITURRIAK



Gure produktuaren prezioa bi modutan sailkatuko dugu. Alde batetik, atearekin etorriko den sentsorea eta txartela. Eta beste aldetik, mugikorreko aplikazioa.

Mugikorreko aplikazioa deskargatzeak 0,90€ko kostua izango du. Gaur egungo aplikazioak oso erabilgarriak direla konprobatuta dagoen arren, jendeak pentsatzen du aplikazio batengatik zerbait ordaintzea ez dela justua. Askotan ez dute pentsatzen aplikazioek eskeintzen duten baliabideetan eta hauengatik ordaintzea errentagarria irtetzen dela.

Gure kasuan, aplikazioaren ordainketa merkea izateaz gain kausa egoki eta seguru baterako sortu dugu. Ez da jolas bat, ezta entretenimendu simple bat; gure etxerako segurtasunaz hitz egiten ari gara.

Ateari txertatuta joango den sentsoreak 850€ balioko du. Sentsorea guztiz fidagarria da. Aplikazioarekin bat datot eta gaur egungo punta-puntako teknologia da. Horretaz gain, atearen sentsorea erosterako orduan txartel bat inkorporatzen dugu, bezeroak nahi izanez gero noski. Hauek ez baitaude behartuak azken hau erostera. Ez badute erosi nahi 50€-ko deskontua egingo zaie. Baina guk txartela erostea gomendatzen dugu. Izan ere, prezio bikana du eta mugikorrik ez duten pertsonentzat, enpresa haundientzat edo txikientzat, ospitaleentzat erabilgarria izango zen ateetatik sartzerako eta irtetzerako orduan. Izan ere, hauetan ere erabateko segurtasuna behar dute. Gainera txartelaz errezago irekiko dituzte ateak giltzekin ixten egon beharrean. Txartel honek txip bat konektatuta dauka eta sentsorearekin harreman zuzena du. Aipatutako eraikinetan sentsore bat baino gehiago beharrezkoa izango denez, 3 sentsore erosteagatik 300€-ko deskontua egingo dugu.

Momentuan garestia dela pentsatu dezakezen arren, esan beharra daukagu sentsore hau bizitza osorako balio duela eta beraz errentagarria irtetzen dela. Gainera, gure segurtasunaz hitz egiten ari gara. Zer gehiago eskatu dezakegu?

Sentsoreak kontratatuta dugun instalatzaile batek jartzen ditu gure bezeroen eguneroko segurtasuna eta erosotasuna kontuan hartzen dituelarik.

